

MARIAN ORMAZABAL (KONTSUMITZAILE BULEGOA)

## “Opari eta jakiak gabonak aurretik erosi behar genituzke”

■ Gabonetan, jendeak ba omen daki nola erosi; baina, gaizki erosten du ■ Normalean, Jendea etxebizitza, aseguru eta obrako gremioei buruzko informazio bila dator.

### KONTSUMITZAILE BULEGOA

- Ongintzako zentruan dago (anbulategi zaharrean)
- 1985ean sortua.
- Jendearen galderak erantzun eta erreklamazioak bideratzen dituzte.
- Hernani eta Astigarragarako jendearentzat da.
- Urtean 500 bat pertsonak erabiltzen du zerbitzua.
- Bertatik pasa edo 943 557854 telefonora deitu.



Eguarritarako erosketak egiten.

■ **KRONIKA: Gabon inguruan jendeak itsu itsuan erosten du. Zeri begiratu behar zaio?**

MARIAN ORMAZABAL: Erregaloen kasuan tiketak eskatu behar dira, gero erreklamatu ahal izateko; CE zigilua izatea ere komeni da, produktu hauek hainbat inspektzio paseak baitira. Onena opariak alde aurretik erostea da, prezioak konparatu eta presarik gabe.

■ **Eta janariaren kasuan?**

Gabonetan zenbait produkturen eskarea asko igotzen da: bixigua, arkumea, legatza... prezioek gora egiten dute. Aurretik erosi eta konjelatzea da erremedioa.

■ **Gabon inguruan jende asko etortzen al da erosi duena erreklamatzera?**

Gabonetan gehiegi ez, baina, errege osteko beherapenetan bai. Lehenik, bezeroak arrazoirik ote duen aztertzen dugu, eta izanez gero zubi lana egin, komertzioa eta haien artean. Komertzioa *arbitraia sistemari* lotua egoteak (Hernanin dextente) asko laguntzen du: erreklamazio kasuetan epaitegiatarajo gabe konpontzeko bitartekoak jartzen baitituzte.

■ **Erreklamatzeko orduan alderik ba al da denda txiki eta superfizie haundien artean?**

Ez da jakiten jendeak zein jarrera izango duen, baina, normalean errazagoa da komertzio txikietan erreklamatzea; tratua gertuagokoa baita.

■ **Jendea zein kezkaekin etortzen da gehien?**

Gaur egun jende asko informatzera etortzen da: obrak egingo dizkien gremioen (harrotz, iturgin...) aurrean dauzkaten eskubideak direla; aseguruak sinatzeko baldintzak direla, etxeen alkilerretan maizterren eskubideak direla...

■ **Zerbait erosi behar dutenei aholkurik ematen diozue?**

Bai. Jende asko etortzen da produktuei buruzko estudioak eskatzera; labadora markena adibidez. Guk aldizkari asko ditugu gomendioak ematen dituztenak, eta jendeari uzten dizkiogu.

■ **Kontsumo aldizkaria ere ateratzen duzue.**

Bai urtean bi. Hernani eta Astigarragako etxeetara eramaten dugu. Ale berria dagoeneko *buzoneatzen* ari gara. □

ESPAINIAKO LOTERIA

## Hernani erdia, zer tokatuko

- Hernanin talde eta elkarte askok saltzen du loteria
- Orain urte batzuk egokitu zen ferreteria batean

## Juan Mari Larrartek gaur deklartatuko du Madrilen

- 10:00etan kontzentrazioa ■ 20:00etan asanblea
- Garzon epaileak AEKren aurkako *autoa* atera eta AEK-ko buru izanak deklaratzera deitu ditu. Larrartek gaur deklaratu-ko du. Juan Mariri elkartasuna adierazi eta erabakia salatzeko, AEK-k kontzentrazioa egingo du, gaur goizeko 10:00etan. Asanblea gaueko 20:00etan. Gudarien Enparantzan biak. □

## ‘Bertso Lata’ bihar hasiko da

- ‘Iñatza-Hernani’ desafioa izango da Ur Mian ■ Afaritako txartelak salgai: 2000 Pta.

Ereñotzun hasiko da bosgarren *Bertso Lata*. Elkarri desafioa bota, eta larunbat gauean ikusiko da zein den indartsuena. Ereñotzuko taldea: Aritz Zerrain, Ibon Miner eta Iñaki Zelaia. Hernanikoa, berriz: Joxe Luis Urdangarin, Unai Agirre eta Iker Osa. Epaile: Joxe Angel Oiarzabal, Mikel Iturbe eta Aitor Mendiluze. Sarrerak: Irrintzi, Txili, Aralar, Bodega eta Ur Mian bertan daude. □

## Kronikako kalendariora hernaniarren argazkiekin

- Kioskoetan izango da salgai ■ Laguntza: 500 Pta

MENDE berriak badu Kronikako egutegia. Kalendariorak aurtengo Hernaniko 17 argazki ditu: Herriarteko pelota txapelketako finalekoa, Karabelgo andreak pintatzen, Behobiakoa, musean andrekaletan, presoan enkartelada, Fermín Cuestari omenaldia, Arriatzuko ikasle izanak koadrilan, Waterpoloko ligako txapelkunak, arraulariak, Iñatza zuko herri kirolak...

### KRONIKA DEBALDE IZATEKO LAGUNTZA

Hernanik 6 hilabetez bere Kronika izan du; eta jendeak debalde jaso du gainera. Orain arte hala izan da. Gero ere hala izatea zure esku dago, neurri haundi batean. Subentzioak eta publizitatea eskertzeak dira; baina, ez dira nahikoa goizetan *Kronika* debalde jasotzeko. Kronika debalde nahi baduzu: Lagundu. □

XABIER ZAPALEGUI  
ERROPA DENDA

Kale Nagusia, 26 - Tel. 943 330 852 - 20120 HERNANI

**yone**  
boutique  
Eguberritan...  
**SALNEURRI BEREZIAK**  
NAGUSIA 63 - HERNANI

**Telemar**  
ITXASTELE S.L.  
Telyco denda  
Elkano 13, HERNANI  
☎ 943 33 26 00

\*Telefonica'ko banatzaile eskusiboa, Movistar, zentralitak, 'Centrex', Telefono altak, Telefonía mugikorra, Faxak, "Via Digital",...

**Eguberritako eskaintza:**  
'Telefonica Famitel' 14.900 Pta

Skoda Octavia. Bizitza osoa

OCTAVIA bat 1.995.000 ptatik.\* (11.990,19 euro\*)  
\*Penintsula eta Balearretako gomendatutako prezioa Skoda Octavia 16V Classic Garraio eta zergak barne. 1 euro=166,386 pta.

**MENABI**  
Txingurri pasealekua, 26 Herrera auzoa DONOSTIA Tel. 943-40 42 43



## Txistorra, azoka eta Gabon giroa Santo Tomas egunean

■ Ikastetxeetan postuak jarrita eta txistorrekin ospatu zuten ■ Sandiusterrin txistorra eta trikitixa izan ziren ■ Urumeak eta Elizatxok ferian jarri zituzten postuak.



Immaculadako 2garren mailako ikasleak irabazi zuten eskolako Santo Tomas postu lehiaketa

BLUSA, abarka, txapel, gona... Santo Tomasek Eguberri giroan sartu gaitu bete-betean. Kanean, goizean pintxoak banatu ziren tabernetan eta arratsaldean Txorimalo lehiaketa egin zen, Berriak eta Doberak antolatuta. Karabelen ere festa polita egin zuten, auzo elkar-teak prestatuta.

**IKASLE ETA GURASOAK** Hala ere festarik handiena ikastetxeetan izan zen. Ikasle, guraso eta irakasleek elkarrekin ospatu zuten. Institutuan jokoak antolatu ziren; Inmaculadan, berriz, postu lehiaketa egin zuten bertako produktuekin. Santo Tomas pasa eta, orain, Olenzteroren zai! □

## Musika Eskolako soinu-joleak, urretan

■ Arrasateko Akordeoi Txapelketan 28 medaila: 10 urrezkoak eta 18 zilarrezkoak.



Musika Eskolako soinu-jole gazteak, medailak lepotik zintzilik dituztela.

HERNANIKO musiko gazteek marka ederra jarri dute Arrasaten. Hemen irabazleak. Urrezko domina: Ane Aierbe eta Maddi Ruiz (A Hastapena); Leire Ayape eta Leire Mendiluze (A Maila); Leire Ayape, Janire Garn,

Garazi Jauregi eta Leire Mendiluze (A ganbara musika) eta Jon Iraola (B maila).

Zilarra: Oihane Erize, Iratxe Etxeberria, Maddi Iradi, Maialen Perez eta Irati Sarasua (A hastapena); Garazi Jauregi

(A Maila); Izarne Artola (B hastapena); Lide Goia, Igor Ruiz eta Sandra Tellez (B maila); Izarne Artola, Jon Iraola, Xabier Pavon, Igor Ruiz, Sandra Tellez eta Leire Ugalde (B ganbara musika). □

## HITZ BITAN



Umea Berriaken zozketan kajatik izena etera eta erakusten.

### ✓ BERRIAK

**Hiru saski zozketatu ziren atzo.** Berriak elkarteak Gabonetako hiru saski zozketatu zituen bere bezero artean. Zorionekoak hauek: Mari Karmen Romero, Maite Zabala eta Maialen Belategi. Hirurek jaso dute beren saskia.

### ✓ HIRINGINTZA BATZORDEA

**Gaur hirigintza batzordea ordubatean.** Sei puntu eztabaidatuko dituzte gaurko bileran. Tartean Eduardo Txillidak bere museo sarrera haunditzeko egindako eskaria.

### ✓ MUSA ELUR-TXORI

**Atzo bukatu zen mus txapelketako lehen fasea.** Dagoeneko 18 bikote aurrerako daude. Gainerako bederatzia hilaren 26, 27 eta 28ko errepeskan aterako dira.

### ✓ UDAL EUSKALTEGIA

**Urte bukaerako jaia dute gaur.** Udal Euskaltegiko ikasle eta irakasleek jai koskor bat eginez agurtuko dituzte aurtengo klaseak. Gabonetako saskia ere zozketatuko dute.

### ✓ PRESOEN ALDE UDALETXEAN

**EH-ko zinegotziak itxialdia egingo dute udal-texean.** Gabonetan presoan alde antolatu diren ekitaldien barruan, EH-ko 9 zinegotziak gaur arratsaldetik bihar eguerdira arte udaletxean sartuta egongo dira.

### ✓ LANGILEKO UME TXIKIENAK GAUR KANTARI

**Gabon kantak kantatzen aterako dira.** 15:00etan hasi eta gabonetan kantak kantatzen ibiliko Latxunben barrena. □

### HERIOTZAK

**Basilio Rosco Galan**

Ostegunean hil zen 56 urte zituela.

Hileta elizkizuna, gaur, zazpietan, Floridako parrokian

### IRRATIAK

(E.M. 99.2): 11:15etan: AEKkoekin berrikeran. Egungo egoera eta gaurko ekintzak. 12:00etan: Haika gazte erakundeak: Amaiur proiektua. 18:00etan: Atzo, Bodega taberna egindako bertso tramaren laburpena.

### ZERBITZUAK

#### ☎ TELEFONOAK

► Taxiak: 943 550093  
► Udaltzaingoa: 943 333288  
► DYA: 943 464622  
► Autobusak: 943 556662  
► Anbulatorioa: 943 557750

#### ☎ FARMAZIAK

► Egunez: Chucla Kardaberaz, 48 ☎ 943 551793  
► Gaez: Chucla Kardaberaz, 48 ☎ 943 551793

### IRAGARKI MERKEAK

■ Autoa salgai. Renault Express, diesela, SS-AP matrikula. ☎ 943-33 05 88



Ereñotzu auzoa, 68-69 (Fagollaga) Tel. 943. 55 00 31 - HERNANI



**MUEBLES HERNANI**  
Esposizio aldaketagatik,  
**Beherapen bereziak.**  
HERNANI ALTZARIAK, Gartzia Goldaraz 8 HERNANI

serigrafia diseinu grafikoa  
etxea apaintzeko gauzen eta oparien denda  
**andrekale35**  
kardaberaz, 35. Tel.: 943 33 60 05

**winterthur**  
ASEGURUAK  
**Esnal- Agentzia, C.B.**  
Aseguru agentzien Elkarte - Inskripzioa zkia 20-2005  
Jose Joakin Esnal Muguruza  
Aita Kardaberaz, 68  
Tel.- Faxe 943 55 06 28  
20120 Hernani

**BADATOR OLENTZERO, BADATOR**  
**Tximeleta**  
Txirrita, 10 ☎ 943 552395  
20120 HERNANI  
**ZATOK TXIMELETARA ZURE OPARIAK AUKERATZERA**